



BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

559. zkia.

XIII. urtea

2006ko otsailaren 10a



Iban Garin

3. geratu da Euskadiko Sukaldari Gazteen Txapelketan

**«Belaustegiko sukaldean
askatasun osoa daukat»**



GUREKIN HASI ETA HEZI

2 urtetatik, 16 urtera

Haur hezkuntza • Lehen Hezkuntza • D.B.H

MATRIKULATZEKO ORDUTEGIA: Egunero 9etatik 19:00etra

ARGIBIDEAK: 943 741 331 telefonoan

E-POSTA: nsp42elg@planalfa.es



UXUE ALBERDI



IMANOL LARRAÑAGA

ZOZOAK BELEARI...

Aupa, Txino!
Gaur ere zuri begira. Ohartu zara atal honetan idazten dugunok bakarrik ateratzen garela BARRENen perfilez? Beste argazki guztiak irakurleari begiratzen diote, baina gu beti elkari so, irakurleari perfila emanez: masail bat, begi bakarra eta sudurraren erdia.

Perfilak ikusita osotasuna imajinatzen ahal izatea garatu dugu gizakiok. Bistaren engainua. Irakurleek ez dute orri honetan Uxue erdia eta Txino erdia ikusten: oso-osorik ikusten gaituzte guk perfila soilik erakutsi arren. Horregatik erakutsi nahi izaten dugu gure perfilik onena: ikusteko geratzen den beste erdia berez dena baino hobea imajinatzen dezaten.

Lana topatzeko orduan ere gure perfila zein den jakin nahi izaten dute enpresek. Bost axola zaie osotasuna bi tituluren jabe bagara!

Errealitatea ere perfilez baino ez dugu perzibitzen: ematen digute irakeko gatazkararen perfila, Gaza eta Zisjordaniako palestinarren perfila, Itsaso Gorrian hondoratu den itsasontziaren perfila... eta errealitateak aurpegiaren alde bat ezkututzen du bere burka propioaren atzean. Hala konformatzen gara: sudurzulo bakararekin, begi-belarri eta masail bakararekin.

Baina alde batetik soilik ikusi, entzun eta usaintzen duenak, alde horretan jasotzen ditu masail guztiak. Alferrik da beste aldeak jartzen saiatzea.

«Perfilak ikusita osotasuna imajinatzen ahal izatea dugu»

UXUE

«Perfilek askotan errealitatea ezkututzen dute»

IMANOL

Ez dakit, baina, akaso, irakurleengandik babesteko modua izan daiteke gu hemen perfilez azaltzea. Izan ere, irakurleek ikusten gaituzte, baina guk ezin dugu inor ikusi, hor daudela sumatzen dugun arren. Jendea begira egongo bagina, behar bada, gehiago kostatuko litzaziguke kontu-kontari jardutea.

Egia da perfilek askotan errealitatea ezkututzen dutela, baina bada dena bistartzen duen perfilik ere. Imajinatu Plaza Handiko banku batean zaudela eserita. Haurdun dagoen emakumearen perfilak jaito aurreko bizitza borobila dela erakutsiko dizu. Beste aldetik oker-oker eginda datorren aitoren perfilak, berriz, jaito ondorengo bizitza gogorra dela. Zahartzaroan jaito aurreko postura berera bueltatzen garela konstatatuko zara.

Eserlekutik jaiki eta San Bartolome kalean behera abantatzen bazara, perfilaren babesa galdu eta jendea aurrez aurre begiratu beharko diozu. Horregatik, batzuk kalearen izkinatik doazela sumatuko dugu, lotsati; beste batzuk, berriz, kalearen erdi-erdiatik ikusiko dituzu hara eta hona, lasai.

Baina aurpegia emateko ausardia izan duena, Uxue, aurpegi-transplantea egin duen emakumea izan da. Berea ez den aurpegiarekin begiratu dio munduari. Hildakoaren aurpegiari bizia eman dio. Eta, garrantzitsuagoa dena, bizitzari aurpegia emateko moduan izango da aurrerantzean.



BIZITZA BIBOLINA JENDEAURREAN JOTZEA BEZALAKOA DA,
BAINA TRESNA JOTZEN IKASTEN ARI ZAREN BITARTEAN



Samuel Butler

Eskerrak Etxegiña Taldetik

Santa Eskeko Etxegiña Taldetik eskerrak eman nahi dizkiogu joan zen larunbateko Santa Eskea antolatzen lagundu ziguten herritar guztiei, elkarte, kirol den-da, harategi, fruitategi, okindegi, ardan-degi, Udalarri eta besteei. Eskerrak ere bere borondatea erakutsi zuten herritar guztiei, modu horretan Caritasentzat 1.516,23 euro lortu ziren-eta.

SANTA ESKEKO ETXEGIÑA TALDEA

Hamahirugarrena!

Hamahirugarrena izan da aurtengoa. Zenbaki honek berarekin dakarren ma-mua ahaztu eta inoiz baino ilusio han-diagoarekin elkartu ginen hogeita pare bat lagun goizeko hamarretan herriko Plazan. Otsailaren 4a zen, Santa Ageda bezpera. Urteroko legean, baserrietako bidea hartzeko ordua iritsi zitzaigun; at-erik ate ohitura zaharra beritzeko unea.

Hotz egiten zuen. Zenbat eta gorago joan, orduan eta beherago topatzen genuen termometroa. Baina baserri atarrietan berotasun berezia sumatu genuen. Baserritarrek eskaintzen ziguten harrera zen. Hatzapar puntetan sentitzen ez den berotasuna.

Zapatua izanik, egun osoan jardun nahi genuen kantuan. Gaueko beder-tzietarako jarrita geneukan afaltzeko zita, baina zortziak eta laurdenetan mobilak jo zuen: "Oraindik baserri batzuk gera-tzen jakuz eta segitu egingo dogu, kon-

forme?". "Bai, konforme". 79 baserri pasa genituen, baina, zoritxarrez, ez ginen guk nahi genuen baserri guztietara iritsi. Bar-katuko al digute baserritarrek.

Hamabi ordu baserri baserri eskean pasa ondoren, gaueko hamarrak eta laurdenetan iritsi ginen San Migeleko so-ziedadera. Nekatuta baina pozik. Han zeuden Agustin Irusta, Balentin Egia eta Esther Mugertza gure zain, taldearen ne-keak eta goseak arintzeko pronto. Esti-matu genien egindako lana.

Irribarreak, jan-edanak, malkoak, muxuak, begiradak, limosna, ... Asko jaso dugu aurten ere. Asko jasotzen dugu ur-tero. Horregatik irtengo gara eskean da-torren urtean berriz ere. Otsailaren 4an. Santa Ageda bezperan, baserri baserri.

ELGOIBARKO IZARRAKO SANTA AGEDA TALDEA

Gabeziak Kiroldegiko zerbitzuetan

Kiroldegiaren inguruko zenbait kexa publiko egitea nahi nuke eskutitz honen bitartez. Erabiltzaile mordoak gara iritzi berekoak, baina lehen pausua ematera inor gutxi animatzen denez, neuk emate-a erabaki dut. Kiroldegiaren egungo ordutegiak aldatu edo moldatu beharko lirakeela uste dut. Erabiltzaileak hiru-koitzu diren sentsazioa daukat, baina or-dutegiek bere horretan diraute. Ordu ja-kin batzuetan ezinezkoa da igerilekuaz kondizio duin batzuetan gozatzea. Ikas-taroak ugaritu egin dira eta sarritan ger-

tatu zait kale bakoitzean laupabost igeri-larirekin topo egitea edo aldageletan apenas tokirik aurkitzea. Dagoen eskae-rarako txiki geratu dela uste dut. Aukera bat ordutegiak luzatzea izan daiteke, adibidez, eguerdian ere irekiz. Zapatu eta domeketan ere ordutegiak luzatu daitezkeela uste dut. Ildo beretik egun gehiegitan ixten da Kiroldegia: Aste San-tua, Gabonetan egun mordoak, abuztuko egun batzuk, zubiak... Jai egunetan, gu-txienez goizez, atek ireki beharko litzu-kete. Batzuek aisialdirako, kirola egiteko darabiltzagu kiroldegiko zerbitzuak, bai-na beste askorentzat terapia bat dira.

Urteko kuota ordaintzea tokatzen de-nean prezioek gora egiten dutela ikusten dugun arren, ez zaigu zerbitzu gehiago edo hobeagorik eskaintzen. Alderantziz, arratsaldetan ez da garbitailerik pasa-tzen eta igerilekuko aldageletan edo sau-nan zinkeria pilatzen da. Garbitasun al-detik gabezia asko daudela uste dut. Gai-nera, argi indarraren erreziboa gutxitzeko izango den ez dakit, baina pasabide ba-tzuetan argirik ere ez da egoten gauez. Langileak murriztuz ez dut uste zerbitzua hobe daitekeenik. Sinadura bilketak ere egin dira zentzu honetan, eta santiamen batean 400 sinaduratik gora bildu zirela uste dudun arren, ez da ezer aldatu. Kiroldegiko zerbitzuen inguruan dugun iritzia galdetu beharko ligukete bazkideei. De-non artean kiroldegi hobe bat egiteko zer bide jarraitu erakutsiko liguke.

MARIE SANCHEZ - NAN 71340201



BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia**.

[b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Mikel Comejo, Juanito Garatza, Amaia Garatza, Sare Gurrutxaga, Imanol Larranaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Iban Urtzar, Koke KE, Urzuzo, Unai Villena, Aiaitz Vives **ESPERA ZAHARRA** Gatxon Garateren liburukit **INPRIMATEGIA** Geru **TIRADA** 4.450 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



TXALOKAK



- Herritar batek **Santa Ageda bezpera egunean kantuan atera ziren herritarrek txalotu nahi ditu**: "Kaleak eta baserriak kantuz poztu zituzten herritarrek txalo potolo bat merezi dute. Zelako poza hartu nuen berriz ere kopla zahar horiek entzun nituenean. Ohitura zaharrak mantendu egin behar dira eta Santa Eskea tradizio handiko ohitura da. Urte askoan berdin jarraituko duzuela espero dut, eta bide batez, herriko gazteak animatu nahiko nituzke, tradizio honekin jarraitu ahal izateko beraien partehartzea ezinbestekoa da-eta".



GALDERAK

• **Erretxindi eta Arregitorre auzoetan ba al dago eskailera mekanikoak jartzeko asmorik?** Erretxindiko bizilagun batek beraien auzoan ere eskailera mekanikoak behar direla uste du. Hirigintza Sailera deitu dugu eta esan digutenez, momentuz ez dago bi auzo horietan eskailera mekanikoak jartzeko proiekturik.

• **Gabonetan zergatik ez da egon haur parkerik Elgoibarren?:** Herritar batek esan digunez, inguruko herri guztietan egon dira haur parkeak gabonetan eta gure herrian ez. Udaleko Kultura Sailera deitu dugu, eta ondorengo erantzun digute: "Elgoibarren ez dago honelako ekintzak antolatzeke gune estalirik, eta gabonetan honelako ekintzak aire librean jartzea ez da oso egokia. Haur parkea jartzeko gune egokiena Kiroldegia da, baina kirol taldeek beraien gunea behar izaten dute entrenatzeko, eta ezin diegu beraien gunea kendu".



Atal honetarako kexak, txalok edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Nafarroa enparantza, 2
 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12

komikia

Hil da gero... Onda Cero



Kokoe 046

Gau-eskolatik euskaltegietara 50 urtean

Estreinako gau-eskolak ateak itxiko ditu

Aurreko astean esan genizuen Don Jose Juaristi eta Don Jose Antonio San Pedro izan zirela gau-eskolako estreinako irakasleak. Jakin dugunez, bi apaizok ez zuten txikitarik ere kobratzen euskarako eskolak ematearren. Borondate hutsean egindako lana izaten zen.

Gau-eskolako materiala erosteko eta bestelako gastuei aurre egiteko, berriz, izena eman zuten 80 ikasleek 5 pezetako kuota ordaintzen zuten hilero-hilero. Eta diruak gobernatzeaz Felix Etxeberria arduratzen zen. Hilero 80 errezibo egiten zituen, gero, banan-banan kobratzeko.

Eta nola ematen zituzten eskolak? Zein metodologia erabiltzen zuten euskara irakasteko? Garai hartan ez zegoen euskara erakusteko material edo metodologia berezirik. Hala ere, eta zerbait behar zutenez, 1955ean Antonio Karmelo Urrestarazuk, Umandik, gaztelaniaz argitaratutako *Gramatica Vasca* izeneko liburua izaten zuten bidelagun.

Eta bat baino gehiago harrituta geratuko bada ere, gau-eskolak emateko *Falange Española Tradicionalista y de las JONS* taldeak lagatzen zien lokala. Gaur egun Gabi taberna dagoen gainean zeuden aipatutako gelok.

Baina hizkuntza bat ikasteko ibilbidea ez da erraza eta laua izaten, ez lehen eta ez orain ere, eta Elgoibarko estreinako gau-eskolak bi urteko bititza izan zuen. Hasierako arrakastaren ondoren, ikasleak gutxitzen joan ziren poliki-poliki, eta, azkenerako, 15-20 lagun baino ez ziren geratu. Ondorioz, 56an zabaldu ziren gau-eskolako ateak, 58an itxi egin ziren. Bi urte baino ez ziren izan, baina badakigu urte emankorrak eta oparoak izan zirela.

Hala ere, ez pentsa hemen amaitu zenik gure herriko gau-eskolaren emana. Datorren astean ikusiko dugun moduan, bi urteko itzalaren ondoren, 1960an berriz ere piztuko dira gau-eskolako argiak.



**FELIX
ETXEBERRIA**

GAU ESKOLAKO
IRAKASLEA 1958AN

1958tik 1972ra gau eskolako irakasle moduan jardun zuen Felix Etxeberria "Parapan"ek, AEK Elgoibarren sortu zen arte. Euskararen egungo egoeraz baikor izateko arrazoi gutxi ikusten dituen arren, euskararentzat garai okerragoak bizitzea tokatu zitzaion.

• Nolatan hasi zinen gau-eskolan klaseak ematen ?

1956an Gau eskolan ikasle hasitako lau lagun: Miren Vallejo, Lurdes Alberdi, Jesus Larrañaga eta neu, hasi ginen klaseak ematen 58an. Kanean ez zen berba bat euskaraz entzuten eta gazteekin lan egin behar zela ikusi genuen. Nik neuk eskola gosea nuen, 11 urterekin laga bainion eskolara joateari.

• Ondo moldatzen al zinen ?

Irakastea zer zen idearik ez genuen. Gramatica Vasca liburutik ikasten genuen bitartean, Bernabe Mugicak espresuki prestatutako liburuxka (20 lecciones para el vascuence con menores de 14 años) erabiltzen genuen ikasleekin. Gero hasi ginen Oñatibiaren irratiko metodoa eta Patxi Altunaren "Euskara hire laguna" erabiltzen. Ezer gutxi ge-

nuen eta kantu eta jolasak generabiltzan. Falangeko lokala okupatuta zegoeneta Plaza Txikira eramaten genituen ikasleak eta jolasean eskolan baino euskara gehiago ikasten zutela konturatu ginen.

• Zer aho gustu laga zizun esperientziak ?

Egindakoaren penarik ez, egingabekoena bai, ordea. Gaizki bada ere egindakoa eginga dago. Ez geunden behar bezala jantzita eta besteak jantzeko ez ginen kapaz. Halere, jendea gustura zebilen eta geu ere gustura. Zerbaitetarako deialdia (hitzaldi, jaialdi, mendi iteera...) egiten bagenuen zinea betetzen genuen. Gauzak antolatzeke animoak ematen zituen. Gainera, denek norberak moduan pentsatzen zutela konturatzeko balio zuen



I. URTEURRENA

2005eko otsailaren 12an, 71 urte zituela hil zen

Milagros Velez Calvoren

oroimenez urteurreneko meza izango da, larunbatean, hilak 11, arratsaldeko 19:00etan Parrokian. Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



[AKORDATZEN NAIZ]



ANTONIO BERASALUZE

1932an jaioa

«Andragaixa»

1955-ian hasi nitzan lanian, eta 1956-xan nobixiak. San Migeleko erromerixan ezagutu genduan alkar. Lehen, erromerixia izaten zan jaiero San Migelen; oiñ ez da egitten. Karretera jeneralian egitten zan, kotxerik ere ez zaguan eta! Bera San Roke baillarakua da, baiña lagunak merexinda bat egin zebeñ kuadrillan, eta merixenda horretan ezagutu naban. Gero, lanera kalera bajatzen nitzanez, ba kalia ere juntatzen giñan, eta holaxe egin gendun bat.

1961-ian ezkondu giñan San Migeleko ermittan. Nere anaixa eta ni batera ezkondu giñan, eta nobixak izen igualekuak dira, Bene. Oso gitxi daude, baiña kasualidadia! Koñata ere Bene zan.

Hiru anai giñan. Zaharrena kantzerrakin hil zan 35 urtekin; ni gaztiena naiz. Gu kalera jun giñanian, basarrixan ama, nere anaixa zana, koñata eta euren alabak geratu ziran.

Ezkondu ostian Bartzelonara egin genduan "viaje de novios". Elgoibartik urtetzen genduan lehenengo aldixa zan. Gero, handik Mallorkara jun giñan. Abioian jun giñan Bilbotik Bartzelonara, orduantxe probau naban lehenengo aldiz. Nobedadia zan guretzat, orduan oin beste abioi ez zaguan. Anaixa ez zan atreibitu.

Gerora ibilli naiz gehixago, eta gustatzen jata. Trankil-trankil juten naiz: ez naiz estutzen. Kotxez edo trenez egitten dan biqija askoz luziagua da. Barkuan ere ibilitakua naiz, baiña abioia nahixago dot.

[GURE BERBAK]

Egittura aipagarri batzuk (5)

Pertsonen deskribapenak egitteko, gure artian erabiltzen dan egittura bat aittatu nahi nuke: adjetibuen zerrendatze hutsa; esan nahi dot *ETA* juntagailurik gabekua, normal-normal erabiltzen dana. Hona hemen adibide batzuk:

- *Asko harena juten giñuazen, Don Justona. Altu zabal haundi bat zuan.*

- *Haren aitta San Lorentzoko semia zuan, plako altu bat.*

- *Lepamotz sendo bat dok taillareko nagusixa.*

Mugagabeko egittura batzuk ere aittatu nahi dittut gaurkuan:

- *Eta, han zaguan, familixan, mutill nagusixena, etxeko maiorazko egin zabana, Bizente.*

- *Txofer banakixan, kameta banaukan ordurako.*

- *Da ni juañ izan nitzan Donostiara, komitekuekin, eginkizunen bat, entrebistaren bat buru egitten zaban batekin.*

Jesus Mari Makazaga



III. URTEURRENA

2003ko otsailaren 13an, 68 urte zituela hil zen
Javier Arriola Lizarralde (Arriola IV)

“Maite zaitugu, beti izango zaitugu gogoan”

Zure familia



I. URTEURRENA

2005eko otsailaren 10ean, 44 urte zituela hil zen
Delia Ramos Rabanos

“Gure bizitzatik joan zara baina ez gure bihotzetatik”

Zure lagunak



OTSAILAK 14, SAN BALENTIN, MAITEMINDUEN EGUNA

LIGATZEKO BIDE BERRIAK

Urtero bezala, iritsi da otsailaren 14a, maiteminduen eguna, orduak eta minutuak bikotearekin pasatzeko eguna. Bai, San Valentín Eguna da. Egun honetan ez dago bikotearekin haserretzerik, dena arrosa kolorekoa da. Hala ere, badira San Valentín eguna uneoro izan behar dela pentsatzen dutenak, eta otsailaren 14a beste egun arrunt bat balitz bezala pasatzen duten bikoteak. Eta zu, aurten ere bakarrik. Gizarte honek binaka elkartzera behartzen gaituela dirudien arren, jende asko dago oraindik bikoterik gabe. Gaurkoan, bihotz bakarti horiei zuzenduta dago gure erreportajea, hemen Internetek ligatzeko ireki dituen ligatzeko bide berrietako batzuk erakutsiko dizkizuegu.

INTERNET, BIKOTEA TOPATZEKO GILTA

Gaur egun ez da beharrezkoa kalera ateratzea bikotea aurkitzeko. Ez daukazu-la parrandara ateratzeko gogorik? Berdin da, ordenagailu baten aurrean esertzea nahikoa da ligatzeko. Interneteko erabiltzaile guztien artean %31k erabiltzen du sarea ligatzeko, eta horien %17ak bikotea aurkitzen du. Sarean adin eta era guztietako profesionalak ibiltzen dira bikotekide bila. Hainbat psikologok dioten bezala, Internet beste komunikazio bide bat besterik ez da, eta hemen ere betiko moduak erabiltzen ei dira lagunak egin eta ligatzeko. Interneten ligatzea ez da kalean baino errazagoa, hemen ere norberaren nor-tasunak zeresan handia dauka, baina lotsa gainditzeko modu erraz bat da.

NON LIGATU

Gaurkoan sarean ligatzeko gune erabilienak emango dizkizuegu. Aukera badago eta erabakia zeurea da.

www.love.com Ingeleseaz dago, eta aukera agortezina eskaintzen du. 50 milioi erabiltzaile aritzen dira bertan.

www.match.com Gune honek hainbat hizkuntzatan egiten du lan, eta 12 milioi erabiltzaile omen ditu munduan zehar.

www.meetic.com Espainiako datu baxerik handiena omen du ezkongabeen gainean.

www.jugones.net Beraiek diotenez, ligatzeko txatik onena da. Mezuak eskuko telefonotik bidaltzen dira webgunean ager daitezten eta Bertan 1.000tik gora lagunak ikusiko dituzte egunero. Gaztelaniaz da.

EUSKARAZ LIGATZEKO AUKERA GUTXI

Euskaldunok ez omen daukagu ligatzeko erraztasun handirik, nahiko hotzak eta lotsatiak izatearen fama daukagu, eta sareak ere ez du euskaraz ligatzeko aukera askorik eskaintzen. Momentuz bi txat nagusi ditugu euskaraz: www.kaixo.com eta www.euskaleria.org

Gune bat aukeratu ondoren, nickname edo ezizen bat jarri behar diozu zure buruari, benetako izena erabiltzerik nahi ez baduzu, behintzat. Lehenengo gainontzekoek euren burua nola aurkezten duten ikustea da

onena eta hortik abiatuta zeure burua aurkeztu. Ziberespazioan ez baduzu sekula ligatu, zenbait aholku eduki behar dira kontuan:

1 Ez eman zure datu pertsonalik (telefonoa, helbidea...), zure solaskidea nolakoa den ondo ezagutu arte.

2. Hitzordua egiten baduzu, inoiz ez geratu toki pribatu edo urrunetan. Hobe jendez inguratuta zauden taberna edo kafetegiri bat aukeratzen baduzu. Badaezpada begirik kenduko ez dizun lagun bat ere eraman dezakezu.

3. Jende askok gezurra esaten du nolako itxura duen azaltzeko. Ez pentsa Angelina Jolie edo Brad Pitt aurkituko dituzunik.


4. Hasi aurretik, garbi izan zer nahi duzun aurkitu.

5. Bikotekidea bilatu baino lehen, saiatu lagunak egiten.

TOPALEKU.COM

Ligatzeko aukerak asko dira interneten. Horietako beste bat Topaleku.com da. Lagunak, adiskidetasuna edo laranja erdia aurkitzea bilatzen duen jendearentzako topaleku bat da. Web-ean erregistratu ondoren, partaidea zortzinaka elkartzeko geratzen dira Bilboko kopa-lokal ezagun batean, eta han beraien artean ezagutzeko aukera dute zortzi minutuz. Animatzaile batek aurkezten ditu eta topaketa esperientzia dibertigarri eta ahaztezin batean bihurtzeaz arduratzen da. Hitzordu hauek burutu ondoren, bertaratutakoak web-eko eremu babestu batera sartzen dira, norekin hasi nahi duten harreman biziago eta iraunkorrago bat erabakitzeko.





Eider Arzelus [Sexologoa]

Ligatzea zein polita den, baina nola?

Badator otsailak 14, badator maiteminduen eguna, badator opariak erosteko eguna, beraz, maiteminduen baina komertzioen eguna ez ote den galdetzen diot nire buruari. Maitasuna erosi al daiteke? supermerkatuetan ez, ezta denda txiki edo plataforma handietan ere, ezta kaleko postuetan ere.

Orain dela gutxira arte ezin litekeela erosi esango nuke eta agian "erosi" aditza ez da egokiena izango maitasuna lortu daitekeela esateko, baina lortu daiteke, ordainetan horrek esfortzu bat suposatzen du, batzuentzat garesti ateratzen den esfortzua beste batzuentzat aldiz, merke, erraz lortu daitekeena. Hala ere, denon esku dagoen edo egon daitekeen zerbait da.

Nire eguneroko lanak irakatsi didan legez, gaztetxoek esaten dute euskal herrian ez dela ligatzen, euskaldunak oso hotzak garela eta gainera, elkarri zera esaten diote; "ez zarete ausartzen guregana gerturatzeko", horrela ez duzue ezer lortuko!! noski, merkeago ateratzen baita

kalabaza bat ematea edota onartzea gerturatu denaren proposamena, koldarkeria alde batera utzi eta gure beldurrei aurpegia ateratzea baino. Zein xuhurrak garen batzuetan!

Ligatzerako orduan arau guztien gainetik dagoen arau bat, atsedetik hartu gabe errespetatu behar duguna eta gure barneko dendatxo batean saltzen dutena behar dugu: gurekiko maitasuna. Nola maitatuko dugu bestela beste norbait, gure burua ez badugu maitatzen, mimatzen, ezagutzen, ferekatzen, entzuten? Gurekiko maitasuna lortzean, magia balitz bezala, autoestima udako termometroak bezala igoko da, seguruago sentituko gara, erakargarriago, denborari denbora ematen ikasiko dugu, eta abar luze bat... (guregan dagoen abar luzea).

Maitasun horren prezioa zein den zuk esan, eta zerbait merkeagoa edo hobetoago aurkitzen baduzu, mesedez, jakinarazi diezaguzue datorren urteko otsailaren 14a aurretik.

Nor zen San Balentin?



San Balentin III. mendean erdi aldera Erroman jaio zen apaiza izan zen. Herritarren artean zuen entzute eta prestigioaren zergatia ezagutu nahian, Claudio II. enperatzaileak bere jauregira gonbidatu zuen. Tradizioak dioenez, kristautasunaren propaganda egiteko erabili zuen San Balentinek hitzordua eta Jesusen pausoak jarraitzea konbentzitu nahi izan zuen. Hasiera baten, Claudio II.a, erromatarrek jezartzen zuten kristautasunera, erakarria sentitu zen, baina soldaduek eta Erromako gobernatzaileak, Calpurniok, ideia burutik kendu arazi, eta apaizak gidatutako matxinadaren beldur, heriotz zigorra ezarri zion enperatzaileak San Balentini. 270. urtean hil zuten. Italiako Terni herrian ei daude santuaren gorpuzkiak.

Herri-hitzak maiteminduen zaindari egin du saildu hau. Baliteke, txorien estaltze-garaia delako iparraldeko herrialdetan edota, usadio zahar batek dioen moduan, San Balentin bizi zen garaian, kristau erlijioa debekatua eta jezarria izan arren, izkurtuan bikoteak ezkontzen zituelako Elizaren erituak jarraituz. Beste batzuek jatorri paganoa duen kristaututako jaia dela diote, izan ere, aintzinako Erroman Eros, amodioaren Jainkoa, gurtzen zen garai honetan.

[PROTAGONISTA]



Luis Cerron

Herri Eskola eta BH Institutuko Guraso Elkarteak Gurasoen Formaziozko VIII. jardunaldiak antolatuta ditu. Guztira lau hitzaldi eskainiko dituzte, eta hizlaria Luis Cerron izango da. Hitzaldi hauetan gurasoen intereserako gai desberdinak jorratuko dituzte. Dagoeneko bi hitzaldi eskaini ditu Luis Cerronek. Ondorengo biak otsailaren 15ean (Nerabazararen ezaugarriak) eta 22an (zigorraren ordezkotako metodoa) izango dira. Hitzaldi hauek irekiak dira, herriko guraso guztiak daude gonbidatuta. Hitzaldiak Kultur Etxean izango dira arratsaldeko 18:30ean.

[NOTIZIA]

Elgoibarko Udalak Salamankako Artxiboko hainbat dokumentu eskatu ditu

Gerrate Zibilean dokumentu desberdinez betetako 260 kaxa lapurtu zituzten Euskal Herriak. Orain arte Salamankan egon dira hauek eta oraintsu Kataluniara eraman dituzte. Dokumentu horien artean, Gipuzkoako 8 herritako papearak daude, eta horietako bat Elgoibar da.

Bide luzea

Marivi Agirregomezkorta alkatearekin hitz egin dugu gai honi buruz, eta esan digunez, dokumentu hauen eskaera egiteko baimena 2002. urtean eman zioten Eudel (Euskal Udalen Elkarte) Elkarteari: "2002. urtean jakinarazi ziguten Eudeletik Salamankako artxiboan Elgoibarko dokumentu batzuk zeudela, eta gaia Plenora eraman zen. Bertan dokumentu horiek eskatzea

Elgoibarko dokumentuak

- Alkateak gerran zauritu eta hildakoen senideei bidalitako minutak (1936)
- Errefuxiatutako herritarren padroia (1936-37)
- Udaletxearen eraketa akta eta azaro eta abenduan eginiko bileretako aktak (1936-37)
- Udaletxera bidalitako posta (1936-37)
- Bizkaian errefuxiatutako elgoibartarren zerrenda (1936-37)
- Errazionamendu libretak (1936-37)
- Zauritu eta hildako herritarren zerrenda (1936-37)
- Bizkaiko Udalek Elgoibarko errefuxiatuei buruz bidalitako datuak (1937)

erabaki zen, baina gai hau Eudelek darabema". Elgoibarko alkatearen hitzetan, "ez dakigu gai honi buruz gauza askorik, esan diguten bakarra: dokumentu hauek bueltatzeko bidea oso luzea izango omen da".

[ZENBAKIA]

11.901.007

Elgoibarko Udalak 11.901.007 euro jasoko ditu 2006. urtean Gipuzkoako Foru Aldunditik. Aurten %8,4 gehitu dira Aldun-

diak Udalei ematen dizkien dirulaguntzak. Gutxi gorabehera, biztanle bakoitzeko 1.527 euro emango dizkio herri bakoitzari.

asteko [ARGAZKIA]



Nola aldatzen diren gauzak! Begira nolako argitasuna daukan egunotan San Frantziskok kaleak, ibaira bistak dituen leiho handi bat ireki dela dirudi etxebizitza zahar bat bota ostean. Beste poztasun bat dauka orain kaleak. Parke batek ez luke gaizki emango, ezta? Argitasunak ez du luze iraungo, etxe zaharren lekua etxe berriek hartuko dute-eta! Gaur egun horixe da dirua ematen duen negozioa: etxebizitzak. Gure herrian etxe berri mordoak eraikitzen ari dira azkenaldian, eta momentuz joera honek berdin jarraituko duela dirudi.

Idekok 7 milioi euro inbertituko ditu fabrikazio prozesu berriak garatzeko



Danobat Taldeko Ideko Teknologia Zentroak Himach proiektua jarriko du martxan. Fabrikazio prozesu berriak ikertzea eta garatzea da helburua. Automobilgintza eta aeronautika sektoreetan jakintza berria sortzen lagunduko du, eta baita mikromekanizazio eta ultradoitazunari lotutako eremuetan ere.

7 milioi euro

Idekok 7 milioi euro inbertituko ditu Himach eraikin berrian. Egungo egoitzaren ondoan 2.000m²ko eraikuntza egingo dute. Honekin, Idekok gaur egun duen espa-

zioa bikoiztu egingo da, eta guztira 4.000m²ko enpresa izatera iritsiko da. Proiektu honen obrak egiteko arduraduna LKS Ingenieria enpresa da eta 10 hilabete epea izango du obrak bukatzeko. Dagoeneko hasi dira lehenengo lanak eta 2006ko urrirako Teknologia Zentru berri hau martxan egotea espero dute.

Himach proiektuak Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Europako Feder Fondoak, Danobat Taldea, MCC eta Zientzia eta Teknologia Ministerioaren oniritzia jaso du, eta proiektuaren finantzazioran lagunduko dute.

[MOTZ-MOTZIAN]

Manu Eizagirre Bai ala Ez lehiaketako irabazlea

Manu Eizagirre izan da urtarrean BARREneko Bai ala Ez lehiaketako irabazlea. Debako Kresala Talasoterapia hotelean bi lagunentzako zirkuitoa irabazi du. Datorren hilabetean Gabi jatetxean bi lagunentzako afaria zozketatuko dugu. Parte hartzeko, astero BARREn egiten dugun galderari bai ala ez erantzun behar zaio. Erantzunak SMS bidez 7505 zenbakira bidali behar dira.



Dementia eta Alzheimer jardunaldiak

Afagik antolatuta, gaixoak nola zaindu erakusteko jardunaldiak izango dira datorren otsailaren 14an, 21ean eta 28an Eibarko Portalean. Jardunaldiak arratsaldeko 18:00etan hasiko dira. Helburua, gaixoen zaintzaileen bizi-kalitatea hobetzea da.

Bidezko Merkataritza

Parrokiako Misio Taldeak antolatuta, Bidezko Merkataritzako dendak berriaz ireki ditu ateak aste honetan. Oraindik bertara gerturatu ez zaretenok bihar izango duzue azken aukera. Goizeko 10:00etatik 13:00etara, Merkatu Plazako lokalean.

Sagardotegira irteera

Gazte Asanbladak sagardotegira irteera antolatu du otsailaren 17rako. Autobusa 20:00etan aterako da Madalatik. Interesatuek Txuri-Beltz tabernan eman dezakete izena. Ikasle eta langabetuek 25 euro ordaindu behar dituzte, langileek 30 euro.

Jubilatuen Egoitzako igogailu berria martxan da



28.000 euro erabili ditu Elgoibarko Udalak Jubilatuen Egoitzako igogailua berritzeko. Azkenaldian makina bat arazo ematen zituen igogailu honek, eta aldatzeko erabakia hartu zen. Azaroan hasi ziren obrak, eta duela aste pare bat jarri zuten martxan. Lehenago bukatzeko asmoa zegoen, baina lanak atzeratu egin dira apur bat.

Igogailu berria Udal Liburutegiraino luzatu dute. Lehen Jubilatuen Egoitzaraino bakarrik iristen zen igogailua, eta Liburutegira joateko eskailerak igo behar ziren.

Inkesta

Eusko Jaurlaritzak %20an garestitu du eskoletako jantokietako bazkaria.

Non bazkaltzen duzu gusturago, etxean ala eskolan?

MARIA LEAL

Ikaslea

9 urte



“Etxean. 2 urtez egon nintzen eskolako jangelan bazkaltzen. Gustuko ez nuena ere jan behar izaten nuen. Ez zen jateko txarra, baina amak jartzen duena hobea da.”

AITOR EZENARRO

Ikaslea

11 urte



“Etxean askoz hobeto jaten da. Nik egunero jaten dut eskolan, baina etxeko janaria gehiago gustatzen zait. Amak jartzen duena hobea da.”

ARKAITZ OTEIZA

Ikaslea

10 urte



“Etxean. Egun baten joan nintzen jangelara probatzeko, baina ez zitzaidan gustatu. Etxean nik nahi dudana jaten dut normalean, eta amak jartzen duena goxoagoa da.”

NEREA LEIARISTI

Ikaslea

10 urte



“Etxean. Txikia nintzenean jangelan bazkaltzen nuen, baina gauza asko ez zaizkit gustatzen eta han jatera behartzen ninduten. Etxean gusturago jaten dut.”

[BAI ala EZ?]

Ba al daukazu sagardotegira joateko ohiturarik?

BAI %22

“Bai, urtero egiten ditut 3 bat irteera. Asko gustatzen zait giroa, kupel ondoko berriketaldiak eta abar. Menua ere ederra da, benetan. Desiatzen nago, aurten ere, joateko.”

EZ %78

“Ez, negozio handi bilakatu dira. Kabitzen dena baino jende gehiago sartzen dute eta askotan goseak ateratzen naiz. Eskerrak, behintzat, ordaintzen dudana edaten dudana.”

Datorren asterako.... Otsailak 14, San Balentin Eguna

Ba al daukazu San Balentin Eguna ospatzeko ohiturarik?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu

Gabi jatetxean.

Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

Chevrolet harrigarriagoa da.

Ez baduzu sinesten 0-km.koa dela, begiratu prezioa.



Lacetti 1.4 SE. 0 Km - 11.700 €

Nubira 1.6 SE. 0 Km - 11.700 €

Orain 2005ean matrikulatutako Lacetti edo Nubira bat(0 km) prezio onenean eduki dezakezu. Berri baten zerbitzu eta ekipamenduarekin. Estreinatzen duzula esan dezakezu, guk gordeko dizugu sekretua.

Giauto 902 345 225

Otaola Etorbidea, 27 · EIBAR · Tel.: 943 70 08 41
Karobi Industrialdea z/g · OLABERRIA · Tel. 943 88 51 50
clientes@giauto.es

www.chevrolet.es

Chevrolet gehiago da.



CHEVROLET

JOKIN URAIN, MENDAROKO PRESOA

20 URTE KARTZELAN

1986. urteko urtarilaren 10ean atxilotu zuten Jokin Urain, "Kixkur". 20 urte daramatza atxilotuta. 2001ean bete zituen bere zigorraren 3/4ak eta legearen arabera, kalean egon beharko luke. Joan zen urtarilaren 27an omenaldia egin zioten Mendaron. Ekitaldi politikoa izan zen lehenengo Goñati pilotalekuan eta ondoren anaiarteko afaria Aizpe Elkartearen. Jokin Urain ezkondua dago eta 19 urteko semea ere badauka, bera kartzelan zegoela jaiotakoa, beraz, ez du aita kartzelatik kanpo ezagutzeko aukerarik izan. Gaurkoan Jokinen senideekin egin dugu berba 20 urte hauek nola bizi izan dituzten jakiteko.

ETako partaide izatea leporatu zioten Jokin Urain mendarorri duela 20 urte atxilotu zutenean. Bere arrebak honela gogoratzen du anaiaren atxiloteta: "PSOE zegoen agintean orduan, Galen atentatuen garaia zen. Jokinek bi urte zeramatzen Iparraldean errefuxiatuta. Guzmanen bahiketan parte hartzen harapatu zuten, eta atxilotu egin zuten. Lehenengo egunak oso gogorak izan ziren. 10 egun komisaldegian pasa zituen eta oso kezkatuta geunden, izan ere, 15 egun lehenago Zabaltza kasua gertatu zena".

20 URTE, HAMAICA ESPETXE


20 urte hauetan Estatuko makina bat espetxetan egon da Jokin. Carabanchel, Alcala, Herrera de La Mancha, Sevilla, Teruel, Valdemoro, Bonxe eta Dueñas espetxetan egon da. Azken honetan sei urte daramatza. Bere senideek makina bat kilometro egin dituzte Jokin bisitatzeko: "Beste presoen senideek bezala ahal dugun moduan egiten diogu aurre egoerari. Gogorrena emazte eta semearentzat da. Nola egongo ote den izaten da gure eguneroko kezka. Astelehenerik bisitan pentsatzen hasten gara: nor joan, nola joan, kar-

tzelan txanda hartu, bideak nola egongo ote diren... bisitak zapatu edo domekan izante dira, 40 minutuko bisitak. Bueltan gainontzeko senideei deitzen zaie Jokin nola dagoen kontatzeko, eta berriz hasten da prozesua".

20 urte, dudarik gabe urte asko dira senide baten faltan egoteko. Gainera, dagoeneko Jokinek zigorraren 3/4ak beteta ditu eta kalean egon beharko luke, baina bere senideek ez dute askatasunaren eguna gertu ikusten: "Ez du ematen egun hori laister iritsiko denik. Preso bat askatzen dutenean, etxekoaren zati bat kaleratuko

Omenaldiko irudiak





Jokin Urain Hodeiertz bere semerekin duela urte batzuk espetxean ateratako argazkia.

balitz bezala sentitzen dugu. Guri tokatzen zaigunean... zaila da imajinatzea, baina dudarik gabe, egun ederra izango da”.

Euskal preso politikoen egoera oso txarra dela kontatu digute: “Dispertsioarekin jarraitzen dute, isolamenduak, zigorrak, gaixoak... kartzela barruan ere sakabana-tuta egoten dira. Guraso asko ezin izaten

dira bisitan joan edadetuak direlako eta bidaia oso luzeak direlako”.

Jokin baina, animoz ondo dagoela aipatu digute: “Senitarteko dexente gara eta bisitarik ez zaio falta. Lagunek ere jarraitzen dute joaten, ez dute harremanik galdu. Askotan esaten digu eguna oso motza egiten zaiola eta ez daukala jasotzen dituen eskuitz guztiei erantzuteko denborarik”.

Mendaroko preso idazlea



1959ko uztailaren 21ean jaio zen Jokin Urain Mendaroko Alkorta baserrian. Betidanik izan omen du irakurketarako zaletasuna, baina euskaraz idazten kartzelan ikasi omen du. 1986ko Abenduan Deba-ko Tene Mujika 3. saria lortu zuen. Geroago hainbat ipuin labur eta bertso idatzi ere egin ditu, eta bertso paperen atalean hainbat aipamen berezi jaso izan ditu. Bere liburu artean, “Izaina” (1990), “Adlotsa” (1992) eta “Gatibu sortu nintzen” (2000) izenburuak aurkitu ditugu. Esan digutenez, orain beste bi liburu ditu eskuarteetan, baina ordenagailua kendu egin diote. Jokinek bere lehenengo ikasketak Lastur Balarako Eskola Nazionalen egin zituen. Gero, Zabalegi Nekazaritza Eskolan jarraitu zuen eta hauek bukatu ostean baserria itzuli zen. Orduko egoera politikoa bultzatuta Iparraldera egin zuen ihes. Bertan ezagutu zuen gaur egun bere emaztea den Idoia Etxeberria. 1986an atxilotu zuten. Hiru hilabete beranduago jaio zen bere semea, Hodeiertz. Egun, neskalagunarekin joaten da aita ikustera.



GAZTIA NAIZ

elkarriketa...

Iban Garin

IBAN GARINEK (27 URTE)HIRUGARREN POSTUA ESKURATU ZUEN EUSKADIKO SUKALDARI GAZTE ONENA AUKERATZEKO LEHIAKETAN. SORTZETZ LIZARRAKOIA IZAN ARREN, SUKALDARI LANBIDEA DELA-ETA, MAKINA BAT LEKU ETA JATETXETATIK PASA DA. AZKEN HIRU HILABETEETAN ELGOIBARREN BIZI DA, AIASTIAKO BELAUSTEGI BASERRIA JATETXEAN LAN EGITEN BAITU. LEHIAKETAK ETA SUKALDARITZA IZAN DITUGU HIZPIDE IBAN GARIN ETA JOSU MUGERZAREKIN, BELAUSTEGIKO SUKALDARIEKIN.

“Harri batetik plater bat ateratzeko gai izan behar da sukaldari bat”

Nolatan animatu zinen txapelketan parte hartzera?

Josuk (Belaustegiko sukaldariak) apuntatu ninduen niri ezer esan gabe. Txapelketak gogoko nituela esana nion eta eskertzen diot, baita sukaldean dudan askatasuna ere. Nire kasara ibiltzen lagatzen dit. Luis eta bera nagusi ezinhobeak dira, oso jatorrak.

Naparra izanik nola hartu duzu parte Euskadiko txapelketan?

Gipuzkoan lan egitea zen Zarautzen jokatatu zen probintziako Txapelketan parte hartu ahal izateko baldintza. Bigarren atera nuenez, Euskadikoan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lehen bi sailkatuek parte hartu behar genuen, baina Arabatik ez zen inor aurkeztu. Azkenean 3. postuan geratu nintzen.

Hortaz, gogoko dituzu lehiaketak?

Urduritasunak jota trago txar bat edo beste pasagatik, txapelketa zalea naiz. Nafarroakoan bigarren izan nintzen 2002an eta Urteko Sukaldari Onenaren finalera iritsi nintzen iaz. Engantxatu egiten dute eta curriculum-a osatzeko baliagarriak izateaz gain, some-

na garatu eta gauza berriak probatzera bultzatzen dute.

Zein izan zen eginbeharreko lana?

Bi plater nagusi prestatu behar genituen; legatza txanguroarekin eta baserriko oilaskoa. Zortzi razio kozinatu behar genituen eta plater bakoitzarentzat hiru homigai. Bost ordu genituen eta ozta-ozta amaitu nituen lanak. Nire homigaiak gaintzekoenak baino lan-
duagoak zeu-



BARREN

dela uste dut eta hortik denborarena. Legatzarekin prestatu nituen ilarrak elkari itsatsita eta dorre bat osatuz aurkeztu nituen.

Zer baloratzen dute epaileek?

Zaporeari 40 puntu ematen zizkioten eta 20 puntu aurkezpenari. Parte hartzaile batek ile lehorgailuarekin egin zuen legatza, baina kozinatze teknika berriok ez zituzten gehiegi aintzat hartzen.

Imaginazioa behar da...

Bai, epaileek sukaldari gazteen some-na eta aurkeztutako errezeten perfekzioa eta aurkezpenen irudimena goraipatu zituzten. Baita zaporearengan horrenbesteko eragina duen jakien testurak zaindu izana ere.

Zenbat denbora daramazu Belaustegin?

Hiru hilabete daramazkit. Gustuko ezer topatu ezean atzerira joatekotan nintzela sortu zen Elgoibarrera etortzeko aukera. Lehenago ere izan nintzen etortzeko zorian, losu (Mugerza) ezagutzen bainuen. Haragien ardura daramat sukaldean: zebra, kanguro, orein, ahate, basurde eta beste hainbat haragirekin lan egiten dugu.

Non ikasi zenuen sukaldaritzatza?

Burlatako Ibaialde sukaldaritzatza eskolan. Gerora hainbat jartetxetatik pasa naiz: Lizarrako Iratxe Hotela, Iruñeako Albret, Martin Berasategiren Mugaritz eta Goiegi Lasarten, "Eth Tharo" Aran-eko bailaran (Katalunia) edo azkena, Leitzako Basakabi.

Horren gaztea izanik jatetxe askotatik pasa zara...

Sarriago lekuz aldatzen diren sukaldariak ezagutzen ditut. Ohikoa da. Leku bakoitzean lan egiteko modu ezberdinak ikasiz gero, ona da airez aldatzea.

Noiz dago egina sukaldari bat?

Edozer egiteko gai denean, hau da, hari bat eman eta plater bat ateratzeko gai denean. Jatetxe berri batera joan eta aurkituko denaren beldurrik ez dagoenean.

JOSU MUGERZA

Belaustegi Jatetxeko sukaldari nagusia



Nolako sukaldaria da Iban?

Egonezina. Ikertzea, probak egitea gogoko du eta hori ezaugarri ezinhobea da sukaldari batengan. Sukaldaritzatza liburuetan muturrak sartu eta sukaldean bakarrik geratzea gogoko ditu.

Ezagutzen al zenuen?

Bai, erreferentzia onak nituen. Leitzako Basakabi jatetxean ari zen eta bertako ugazaba, Alex Mugica, laguna dut.

Zer nabarmenduko zenuke Ibanen kozinatze modutik?

Irudimena. Aurkezpena eta apaingarriak ere asko zaintzen ditu. Sukaldari osoa da, sukaldaritzatza tradizionala dominatzen du, baina gauza modernoak egiteko gai da.

Datozen sukaldari berrien ikur al da?

Ez dut uste datorkigun sukaldaritzatza moderno edo abangoardista horretan kokatzen denik, gu geu ere ez baikara uhin horretakoak. Fundamentu batekin kozinatzea gustatzen zaigu. Ferran Adriak aurkez ditzakeen

berrikuntza asko ez ditut gogoko. Jendea bereganatzeko astirik laga gabe kaleratzen dira berrikuntzak askotan. Ez dira mundu guztiaren mahaira iristen, jakineko batzuegana bakarrik. Hortaz, zertarako balio dute berrikuntzak? Hori da sukaldarion artean puri-purian dagoen eztabaida.

Sukaldariak modan zaudete. Berasategi edo Arzak izan nahi duten asko al daude?

Ez pentsa sukaldari gazteen merkatua horren ongi dagoenik. Gazte asko hasten da sukaldaritzatza eskolatan, baina laga ere mordoak egiten du. Eguneroko lana nolakoa den ikustean, asteburutan lan egin beharra, e.a. atzera egiten dute askok. Izan ere, Subijanaarekin lanean hastea desio dute gehienek, etxea ezin daiteke teitlatutik hasi, ordea; oinarri bat, jakinduria bat eta urteetako esperientzia ezinbestekoa da. 20 edo 22 urteko sukaldari gazteek plater miragarria asmatu nahi dute, lenteja plater edo salsa on bat egiten ez dakitenean. Hankasartze handia dago hor.

SANTA ESKEAREN ERREPASOA ARGAZKITAN

Agur Santa Ageda, ongi-etorri inauteriak

Amaitu dira aurtengoz Santa Agedaren omenezko koplak eta bertsoak. Otsaileko hotzari aurre eginez kale eta baserriak girotu zituzten Etxegiña Taldekoek eta Elgoibarko Izarrako taldeek. Biak ala biak, usadio zaharrak bizirik mantendu eta belaraldi berriei ezagutarazteko intentzioarekin ateratzen dira Santa Eskean. Baserriz-baseri atera ziren bi taldeek 79 baseri koplaztea lortu zuten egun osoan kantuan jardun ostean. Etxegiña taldekoek, beriz, 1.516 euro batu zituzten herriko kaleetan. Azken urteetako ohiturari jarraituz, Caritas erakundeari emango diote batutako dirua. Aurki, baseritar jantziek inauterietako mozorroei egin beharko die lekua, otsail bukaeran iritsiko baitira inauteriak.




EUSKARA ETA LANA

IMHk fabrikazio alorreko langileentzako bi ikastaro euskaraz eskainiko ditu estrainekez

2005ean Eskaripeko eta Garatuko ikastaroak euskaraz eman dira IMHn, eta hurrengo pausoa ikastaro programatuak abiatzea izango da, iaz enpresekin egindako hausnarketaren ondorioz.

Goazen euskara planaren baitan, Makina Erremintaren Institutuak 2005-2015 urtetarako euskalduntze prozesua eratu zuen eta hainbat ekintzen barruan, formazio eta enpresa munduen arteko zubi lanak egitea da helburuetako bat. 2005ean Heziketa Iraunkorreko atalean,

IMHko irakasle talde bat eskolak euskaraz emateko gaitu ondoren, 2006an, datorren udaberrian, CNC Tomuaren programazioa (Fagor) eta CNC fresatzeko makinaren programazioa (Fagor) euskaraz eskainiko da estreinekez. Urtean zehar beste alorretara (mantenimendua eta diseinua) ere zabalduko da eskaintza. Interesa duten enpresa edo langileek www.imh.es webgunean sartu edo 943 744132 telefonora dei egin dezakete.



Joan Mari Irigoien idazlea eta Mikel Markez abeslariaren bisitak

Joan zen astean euskal kulturako 2 pertsonen bisita izan genuen, idazlea bata eta musikaria bestea. Mikel Markez abeslariak euskal kanten ikastaroa eman zuen AEK euskaltegian. Ikastaroaren helburuak 2 dira: bata ikasleei abestiak eta euren egileak ezaugaraztea, eta, bestea, ulemena lantzea, kanturako ohitura hartzea. Ekitaldi hau Udal Euskara Batzordeari esker egin ahal izaten da 2 urtetik behin, eta harrera bikaina izaten du. Bestalde, Elgoibar BH-ko ikasleek Joan Mari Irigoien (Altza, 1948) idazleak eskainitako hitzaldia entzuteko aukera izan zuten. Euskal nobelagintzaren autore gailenatariko bat ("Consumatum est", "Babilonia", "Poliedroaren hostoak", "Lur bat haratago...") da Irigoien eta adi izan zituen bertaraturakoak.



Tibeten inguruko argazki erakusketa inauguratuko da gaur

Gaur, hilak 10, arratsaldeko 19:00etatik aurrera irekiko ditu ateak "La tierra de los pasos perdidos" argazki erakusketak. Juan Ramon Llavori argazkilaria zumaiarra da egilea eta Tibeten ateratako argazkiekin osatu du otsailaren 26ra arte Kultur Etxeko erakusketa gelan ikusgai egongo den erakusketa. Peru, India... urruneko lekuetara egindako bidaietan eginiko argazkiekin antolatu izan ditu erakusketak eta sari bat baino gehiago irabazi izan ditu, esaterako, Gipuzkoa Internazionala garaikurra.



MEKANOSA

Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

INTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2 · 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

MIKEL FIDALGO ELGOIBAR XAKE TALDEKO KIDEA

«Adimena agian ez, baina kontzentrazioa eta oroimena garatzen ditu xakeak»



Elgoibar Xake Taldeko kidea da Mikel Fidalgo. Hamar lagunez osatua dago taldea eta Gipuzkoako Xake Txapelketan parte hartzen ari dira Lehen mailan.

🦋 Zenbat talde daude zuen mailan?

Hamabi talde. Gehienak Donostia-koak izan arren, gertuagokoak ere badaude: Eibar, Deba, Mutriku, Azkoitia eta baita Baionako talde bat ere. Xake talde mordoak desagertu dira eta xakelari askok Gipuzkoako talderik garrantzitsuenara, Groseko Xake Taldera, emigratu zuten. Maila guztietan dituzte taldeak. Lehen maila gure behar eta ambizioen neurikoa da. Goragoko mailetako txapelketak luzeagoak dira eta konpromiso gehiago eskatzen dute.

🦋 Zer nolako taldea daukazu?

Xake talde bat baino xakea gogoko duen hamar laguneko taldea gara. Gazteenak 20 urte ditu eta 46 urte nagusienak. Lana edo ikasketak direla-eta, txapelketan aritzeko laukotea osatzeko arazoak izaten ditugu askotan. Bolada kontua den arren, xakeak garai hobeak ezagutu ditu Elgoibarren, bost talde edukitzeraz ere iritsi ginen. Akorduan daukat gure taldeko 8 urteko mukizu batek, ez dut izenik gogoan, hogeitapiku urteko mutrikuar bati irabazi ziola txapelketako partida. Orain gaztetxoan artean ikastaroak ematen hasi gara, ia horrela harrobia berpizten dugun.

🦋 Neska gutxi ikusten da xakean?

Halaxe da eta ez dakit zergatia. Sinesgaitza badirudi ere federakuntzak gizonetzako eta emakumezkoentzako kategoriak bereizten ditu oraindik, jokalaria guztiok aurka gauden arren.

Hori bai, neskek aukera dute mutilekin edo euren artean lehiatzeko.

🦋 Nola entrenatzen duzue?

Ordenagailuarekin. Entrenatzeko programak daude eta interneti esker (Ajedrez 21 helbidean) edonorekin: erusiarrek, amerikarrak... eta edozein unetan joka daiteke. Beharbada, xake taldeak jenderik gabe zergatik gertatzen ari diren azaltzeko arrazoi bat izan daiteke. Teknologia berriei esker etxeko erosotasunetik atera gabe joka daiteke-eta.

🦋 Makinak gizakiari nagusitu al zaizkio?

Aspaldi. Galdutako guda da hori. Ez dago zereginik, ezta gutxietsita sentitu beharrik ere

🦋 Zer ezaugarri behar dira xakelari on bat izateko?

Oroimen ona derrigorrezkoa da. Partida guztietan, batez ere hasieran, errepikatzen diren mugimenduak daude. Intuzioa ere garrantzitsua da, xake-taula batean dauden aukerak amaigabeak baitira. Partida guztiak ezberdinak dira eta hor datza xakearen xarma.

🦋 Zer onura izan ditzake xakeak?

Adimena garatzen laguntzen duenik ez dut uste, baina kontzentrazioa eta oroimena landu eta diziplina eskuratzeko lagun dezake. Xake-taulan arazo asko planteatzen dira eta xakelariak irtenbide logikoena topatu behar du. Azken finean, horixe da ikastea.

«Xake-taulan dauden aukeretatik logikoena aukeratu behar da»

ATLETISMOA

Angel Mari Lopez Gipuzkoako Kros Txapelketako irabazle

Mintxeta Atletismo Taldeko Angel Mari Lopez antxintxikiariak garaipen bikaina lortu zuen eskolarteko Gipuzkoako Kros Txapelketan. Kadete mailako lasterketa irabazi zuen Angel Mari (argazkiaren erdian, irabazlearen txapelarekin ageri da) joan zen otsailaren 5ean Hemanin jokatu zen proban. Denboraldi bikaina burutzen ari da elgoibartarra, Mugerza krosean ere 7. postuan sailkatu baitzen, maila handiko proban. Hemanin Mintxetako antxintxikari gehiagok ere parte hartu zuen: Borja Diez 8. postuan sailkatu zen infantil mailan eta Ibon Belaustegi 9. postuan alebin mailan. Nora Santiago ere primeran aritu zen eta 6. postua lortu zuen alebinetan. Taldeka, bigarren talderik onena izan zen Mintxeta nesken alebin mailan eta laugarren talderik onena mutiletan.



[EMAITZAK]

FUTBOLA

Salvatierra 1 - Haundi 0 (3. maila)
 Elgoibar 3 - Legazpiko Gaztetxea 1 (Erreg.)
 Elgoibar 2 - Zalla 1 (Jub.)
 Elgoibar 0 - Beasain 2 (Inf. A)
 Elgoibar 2 - Heman 4 (Inf. B.)
 Zumaia 9 - Elgoibar 0 (Neskak)
 Bergara 3 - Elgoibar 0 (Neskak F-8)

ESKUBALOA

Tecnifuelle 32 - Escolapios 27 (Senior mut.)
 ANTI Softlan 18 - Arrikutz Oñati 28 (Senior. mut.)
 La Salle 16 - Lojantzi 22 (Senior. neska)
 Usurbil 12 - Pneumax 27 (Jub. mut.)
 Urola 28 - Umobitza 29 (Kad. mut.)
 Ordizia 19 - Tecnomeca 24 (Kad. mut.)
 Olsala 15 - Aterpe 17 (Inf. neska)

ESKU PILOTA

Ilunpe 7 - Lagunak (Atxo./Portu) 22 (1. jub.)
 Tartaloetxe 22 - Lagunak (Liz./Ariz.) 14 (2. Jub.)
 Lagunak (Arrib./Salegi) 22 - Eibar 14 (2. Kad.)

Igerilari elgoibartarrak Azpeitiko Igeri Txapelketan



Elgoibar Igeriketa Taldeko alebin mailako neska-mutilek Azpeitiko Igeri Txapelketan parte hartu zuten. Ainhoa Etxeberriak (1'06"94) eta Ane Espillak (52"85")

50 metro bular estiloan parte hartu zuten eta Mikel Royok (1'05"13) mutiletan. Azkenik, Eneida Egañak (1'51"19) 100 metro bizkar estiloko lasterketan egin zuen igeri.

Pilates eta Batuka ikastaroak otsailean

Udal Kirol Patronatuak Pilates ikastaroko talde berriak osatuko ditu otsailaren 14tik aurrera. Bi talde berri hauen ordutegiak honako hauek izango dira: martitzen eta eguenak, 19:15ean eta 20:15ean, Olaizaga kiroldegian. Izena ematea nahi duenak Olaizaga kiroldegira jo edo bertara deitu behar du (943 74 44 15).

Bestalde, Udal Kirol Patronatuak Batuka ikastaroa antolatu du Mintxetan. Klaseak Elena Silvak zuzenduko ditu, martitzen eta eguenetan, 20:40etik 21:30era, Mintxeta Gimnasioan. Ikastarorari otsailaren 14an emango zaio hasiera. Izena emateko Olaizaga kiroldegira deitu.

[AGENDA]

FUTBOLA Mintxetan

Zapata, 11
 12:00 Elgoibar - Arrasate (Kad.)
 16:30 Haundi - Basconia (3. maila)
 18:30 Elgoibar - Zumaia (1. erreg.)
 Domekia, 12
 10:30 Elgoibar - Kostikas (Alebin)
 12:00 Elgoibar - Aloña Mendi (Neskak F-8)

ESKU PILOTA Ikastolan

Barixakua, 10
 21:15 Lagunak - Lazkao (2. Kad.)
 22:00 Lagunak - Alzatarra (2. jub.)
 22:45 Lagunak - Zumaia (1. jub.)
 Zapata, 11
 12:00 Lagunak - Aretxabaleta (Nag.)

ESKUBALOA Kiroldegian

Zapata, 11
 14:45 Tecnomeca - Donibane (Kad. mut.)
 17:30 Pneumax - Zarautz (Jub. mut.)
 19:00 Lojantzi - Sestao (Senior. neska)
 Domekia, 12
 9:30 Pagoaga - Groseko (Kad. neska)
 11:00 Cometel - Zarautz (Jub. neska)
 12:30 Umobitza - Bidasoa (Kad. mut.)

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

† Erdialdean dagoen pisua salgai. 3 logela, 2 komun oso, egongela-jangela handia, sukalde. Bizitzera sartzeko moduan.

☎ 656 72 44 01

† Pisua salgai Pedro Muguruza 31n. 3 logela, egongela, sukalde, komuna, trasteroa. Igogailu berria.

☎ 630 43 11 71

† Etxea salgai Eretxindin. 4 logela, sukalde eta egongela. Balkoi handi eta eguzkitsua. Igogailua. Altzariekin. 34 milioi.

☎ 943 01 40 18/
645 73 11 25

† Luxuzko pisua salgai Elgoibarko Plaza Handian. 100m².

☎ 619 409 273

† Etxea salgai Iñiguez de Karkizano kalean. Oso eguzkitsua, dena kanpoaldera.

☎ 686 26 27 27

† P. M. Urruzuno kalean, etxebizitza berrieta salgai. Bizitzera sartzeko moduan. Prezio eskuragarria. Iluntzean edo gauen deitu.

☎ 690 70 38 85

ALOKAIRUA

† Pisua osatzeko pertsona bat behar da. ☎ 610 45 85 52

† Pisua hartuko genduko alokairuan. ☎ 943 53 17 33

† Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 626 91 49 04 (Rosa)

[GARAJE eta LOKALAK]

† Garaje marraduna alokairuan Santa Ana 2an, Ametsa parean.

☎ 943 74 34 27

† Sigmako poligonoan dagoen 600m²ko pabilioia salgai.

☎ 619409273/902103287

† Leku Ederren garaje itxia salgai. 2. solairuan. ☎ 635 71 79 67

† Garajea salgai San Roken (12-14, Kiroldegi parean).

☎ 629 31 42 42

† Ametsa parean dagoen garajea alokatzen da. ☎ 615 78 78 57

† Pista Beltzean garaje marraduna alokatzen da. ☎ 699 81 25 66

[BESTELAKOAK]

† Urbiolak eginiko eskopeta salgai. Bi kanoi, eta 60zm-ko beste kanoi bat. Egoera onean.

☎ 685 75 70 52

† Lursaila salgai San Lorentzen.

☎ 943 74 23 06

† 598x605x865 tamainako Fagor izozkailua salgai.

☎ 605 71 91 98 (Itziar)

† Estreinatua gabeko sukalde salgai. Prezio onean.

☎ 635 74 71 45

† "Colnago" bizikleta salgai. C50 karbonozkoa. Campagnolo Record. 10 abiadura.

☎ 609 888 653

[AUTOAK]

† Ford Mondeo GLX SS-AU autoa salgai. Egoera onean. ITV pasatu berri, beti garajejan.

☎ 605 70 17 15

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 € eta alokairua 8 €. Autoak 8 €. Eta bestelakoak 5 €. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

• Neska etxeko lanak egiteko prest. ☎ 647 15 59 08

• Neska garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest.

☎ 639 88 20 04

• Emakumea etxeko lanak egiteko prest. ☎ 943 74 22 01 (Araceli)

• Emakumea nagusiak edo haurrak zaindu eta garbiketa lanetarako prest. ☎ 686 578

228/943 53 12 75

• Mutila harategian lan egiteko prest. ☎ 615 00 83 46

• Neska gaztea garbiketa lanak, nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ 943 53 12 70

• Emakumea asteburuetan lan egiteko prest. Nagusiak zaindu, garbiketa lanak, ostalaritza...

☎ 626 91 49 04 (Rosa)

• Mutila kamarero, igeltsero, elektrikari... lanetarako prest.

☎ 652 72 94 00

• Mutila kamarero, igeltsero, sukaldari laguntzaile... lanetarako prest. ☎ 626 198 659

• Mutila kamarero lanetarako prest. ☎ 686 475 563

• Neska goizez lan egiteko prest. ☎ 696 79 41 07

• Klase partikularrak ematen dira. Lehen eta bigarren hezkuntza. ☎ 943 53 10 54

• Emakumea nagusiak edo haurrak zaintzeko prest.

☎ 646 235 195

• Emakumea haurrak edo nagusiak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ 697 97 50 26

• Mutila lanerako prest: kamarero, garbitzaile, sukaldari laguntzaile... ☎ 660 927 566

• Mutila lanerako prest: kamarero, garbitzaile, sukaldari laguntzaile... ☎ 660 927 566

• Mutila lanerako prest: kamarero, garbitzaile, sukaldari laguntzaile... ☎ 660 927 566

ESKAINZA

• Debagoienarako txarkuteroa behar da. Baldintza onak.

☎ 666 28 57 75

• Esperientziadun kamareroa behar da astean zehar arratsalde eta asteburuetan lan egiteko. ☎ 679 75 88 66

• Elgoibarko enpresak administrari laguntzailea behar du. Interesatuek bidali curriculum. pol.pol.48200@yahoo.es

☎ 635 73 46 16

• Eibarko musika taldeak abeslaria behar du. Musika mota: Berri Txarrak, Soad, Metallica...

☎ 653748999/659385864



• Donostiako enpresak **administraria** behar du.

Erref. 162006001717

• Bergarako enpresak **internet irakaslea** behar du.

Erref. 162006001260

• Mutirikoko enpresak **rebabarako langilea** behar ditu.

Erref. 162006000825

• Oñatiko enpresak **galdaragilea** behar du.

Erref. 162005012838

• Arrasateko enpresak **elektronikako ingeniaria** behar du.

Erref. 162006000700

• Donostiako enpresak **klunikako laguntzailea** behar du.

Erref. 162006000760

• Donostiako enpresak **arotza** behar du.

Erref. 162006001535

• Gipuzkoako enpresak **tomurako langilea** behar du.

Erref. 162006001077

• Oñatiko enpresak **arotza** behar du. Erref. 162006000793

• Oñatiko enpresak **pintorea** behar du. Erref.

162006001328

Hautagai moduan sartzera eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zenturra deitu: IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

ABISUAK

• Karaktera bidean gizezko baten hortzak aurkitu ditut.

☎ 943 74 27 27

• Sofa zaharrak eta telebistaren bat hartuko genituzke.

☎ 627 10 49 15

• Perlazko eratzuna galdu dut Nettora bidean, turkesazko hari-bitxiak ditu. Oroigarri berezia da niretzat. ☎ 943 74 20 06

(Aurora)

• Sofa zaharrak hartuko nituzke.

☎ 628 527 325

• Urtarilaren 10ean Madalako errotondan istripua izan nuen, eguerdian. Lekukoen bila nabil.

☎ 680 319 002

[ZORIONAK]



† Zorionak **Maialen** otsailaren 12an 9 urte egingo dituzulako. Etxekoan partez.



† Zorionak **Patxi** zure lehenengo urtebetetzean. Oso ondo pasa igandean. Muxuak denon partez.



† Zorionak **Pablo** otsailaren 12an 5 urte egingo dituzulako. Familiako guztien partez.



† Zorionak **Irati** otsailaren 9an zure lehenengo urtea egin zenuelako. Muxu handi bat gurasoen partez.



† Dagoeneko iritsi da zure lehenengo urtebetetze eguna **Egoitz!** Ikastolako laguntxoan partez, ondo pasa egun zoriontsu hau.



† Zorionak **Janire** otsailaren 12an 6 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat aita, ama eta lkerren partez.



† Zorionak **Asier** otsailaren 15ean 6 urte egingo dituzulako. Familiakoan eta bereziki, Mariaren partez.



† Zorionak **bikote**, bihar, otsailak 11, zuen urrezko ezteiak ospatuko dituzuelako. Familiako guztien partez.



† Zorionak **Nora eta Saray** hilaren 6an eta 12an zuen eguna delako. Egun ona pasa. Guraso, aitona-amonak eta bereziki, Ane, Eider, Harkaitz, Eneritz, Maider, Gorka eta Royren partez.



IKASTAROAK

IGELTSEROTZA, ARGIKETARI ETA LORAZAINTZA IKASTAROAK

Fondo Fomacion Euskadik Igeltserotza, Argiketari eta Lorezaintza ikastaroak antolatu ditu. Baldintzak: Langabea edota ikaslea izatea. Igeltserotza: martxoaren 13an hasi eta maiatzaren 15ean amaituko da. Argiketaria: otsailaren 16an hasi eta apirilaren 26an amaituko da. Lorazaintza: otsailaren 22an hasi eta martxoaren 28an amaituko da. Hurretan praktikak bermatuak egongo dira. Informazioa: 943 344122/ 943 344119

LEHIAKETAK

ARTE PLASTIKOEN XVI. UHUN LEHIAKETA 2006

Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalak Arte plastikoaren XVI. UHUN lehiaketa antolatu du. Baldintzak: Gaia, teknika eta estiloa egilearen hautukoak dira. Euskarriak 2 dimentsiokoa izan behar du. Lehiaketaren xedea ez da lehiakortasuna. Egile bakoitzak bere obrari balorazioa emango dio, baina balorazio hori ez da inoiz izango 6.000-tik gorakoa. Sariak: 12.600_ obraren erosketagatik. Epea: otsailaren 20tik 24ra. Informazioa: 91 3987555 / 91 3986050

LANA

OBRA ETA ZERBITZUETAKO BURU BAT BERGARAKO UDALERAKO

Bergarako Udalak Bergarako Udalean Obra eta Zerbitzuetako lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa antolatu du. Baldintzak: Aparejadore edo Arkitekto Teknikoaren titulua edo Obra Publikoetako Ingeniari Teknikoaren titulua izatea eta Euskarako 4. hizkuntza-eskakizuna, derrigorrezkoa. Epea: otsailak 8. Informazioa: 943 779100

ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARI BAT PASAIAKO UDALERAKO

Pasaiako Udalak Pasaiako Udaleko Idazkaritza Departamentua sendotzeko programaren barruan Administrazio Orokorreko Teknikari bat aldi baterako kontratatuko oposizio-lehiaketa. Kontratu praktiketako izango da eta gehienez ere 3 urteko iraupena. Baldintzak: Zuzenbideko lizentziaduna eta bi hizkuntza ofizialetan ahozko nahiz idatzizko adierazpen maila ona. Epea: otsailak 13. Informazioa: 943 344034

AUKERA BERTINTASUNEN TEKNIKARI LANPOSTU 1 ALTSASUKO UDALAN

Altsasuko Udalean Aukera Bertintasuneko Teknikari lanpostu 1 oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia. Baldintzak: Unibertsitateko erdi-mailako unibertsitate-graduatuari dagokion titulazioa edo baliokidea. Epea: otsailak 24. Informazioa: 948 562161

ADMINISTRARI BAT ZIZURKILGO UDALERAKO

Zizurkilgo Udalean kontabilitateko lanposturako administrari bat kontratatuko oposizio-lehiaketa. Baldintzak: Goi-mailako Batxilergo-titulua, 2. mailako Lanbide Heziketako titulua edo baliokide bat izatea. 3. hizkuntza-eskakizuna, derrigorrezkoa. Aurrekontu publikoaren kudeaketa informatikoan esperientzia izatea. Epea: otsailak 14. Informazioa: 943 691012

UDALTZAIN BAT HERNANIKO UDALERAKO

Hernaniko Udalean udaltzain-lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa librea. Baldintzak: 18 urte beteta eta 32 urte bete gabe izatea. Eskolako Graduatu, Lehen mailako Lanbide Heziketa edo baliokide bat izatea. Gizonezkoek gutxienez 1,65 m.ko altuera eta emakumeek 1,60 m.koa izatea. Lehentasunezko ibilgailuak edo maila handiagokoak gidatzeko baimena (BTP) eta E gidabaimena izatea. Euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna. Epea: otsailak 14. Informazioa: 943 337000

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es
☎ 943 741 461



Astearterik ostiralera
16:00-19:00



[OKINDEGIA]



12 igandea DOÑA MERCEDES



[FARMAZIAK]

- 10 Bidasolo
- 11 Etxeberria (Santa Ana)
- 12 Etxeberria (Santa Ana)
- 13 Ibañez
- 14 Bidasolo
- 15 Etxeberria (Santa Ana)
- 16 Fernandez
- 17 Yudego

GUARDIA 24 ORDUZ

* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.

KANPOKO FARMAZIAK

IBÁÑEZ
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84



[AUTOBUSAK]

ELGOIBAR - DONOSTIA

Astegunak: 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40

Larunbatak: 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00

Igandeak eta jaiegunak: 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40

DONOSTIA - ELGOIBAR

Astegunak: 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.

Larunbatak: 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45

Igandeak eta jaiegunak: 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.

PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

Astegunak: 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.

Asteburuak eta jaiegunak: 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

Astegunak: 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.

Asteburua eta jaiegunak: 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.

EUSKOTREN: 943 74 04 42

[10 BARIXAKUA]

19:00 LA TIERRA DE LOS PASOS PERDIDOS ARGAZKI ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA

Egilea: Juan Ramon Llavori
Kultur Etxeko erakusketa gelan
Hilaren 26ra arte

[11 ZAPATUA]

17:30 TORTURAREN AURKA DONOSTIAN IZANGO DEN MANIFESTAZIOA JOATEKO AUTOBUSUA

Tiketak: Txuri-beltz eta Jai-alai tabernetan salgai



ESKERTZA

2006ko otsailaren 2an hil zen
Ines Ecnarro Atristainen sendiak,
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



X. URTEURRENA

1996ko otsailaren 11n, 21 urte zituela hil zen
Gaizka Galdos Arakistainen
oroimenez urteurreneko meza izango da, igandean, hilak 12,
eguerdiko 12:00etan mendaroko Garagarzako elizan.
Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



[12 DOMEKIA]

10:00 ARNORA MENDI IRTEERA

Irteera: Ikastolatik
Nora: Arno (612 m.) mendira (Mutriku)

Antolatzailea: Elgoibar Ikastola

12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA

Herriko Antzokian

Egitaraua: "La Gracia de Dios" (R. Roig); "Rienzi" (R. Wagner); "The Simpsons" (D. Elfman); "Antonin's new world" (A. Dvorak), "Memory" (R. Ares) eta "James Bond 007" (J. de Mey)
Zuzendaria: Jose Antonio Osoro

[13 ASTELEHENA]

19:00 TORTURAREN AURKAKO EGUNA

Prentsaurrekoa Plaza Handian

[15 EGUAZTENA]

18:30 HITZALDIA

Gaia: Komunikazioa (entzute eraginkorra). Nerabezaroaren ezaugarriak

Hizlaria: Luis Cerron

Kultur Etxeko hitzaldi gelan

Antolatzailea: Herri Eskolako

Gurasoen Elkarte eta Elgoibar BHI

[16 EGUENA]

19:30 EINBIOUREN HERRI BATZARRA

Kultur Etxean

[17 BARIXAKUA]

20:00 SAGARDOTEGIRA IRTEERA

Autobusaren irteera: Madalatik
Izena emateko: Txuri-beltz tabernan (otsailaren 14a baino lehen)

Prezioa: Ikasleak/langabetuak 25 euro. Langileak 30 euro
Antolatzailea: Gazte Asanblada

[18 ZAPATUA]

10:00 ANTZERKI TEKNIKAK IKASTAROA

Iraupena: 8 ordu (jarraipena otsailaren 25ean, zapatuan)

Nori zuzenduta: 16-25 urte bitarteko gazteei

Matrikulazioa: 20 euro

Izen emateko azken eguna:

Otsailaren 16a (eguna).

943 74 16 26 (Nerea) edo

nerea.larra@elgoibarkoizarra.com

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

Kultur Elkarte

Oharra: Plaza mugatuak

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN «Plan de vuelo: desaparecida»

10, barixakua: 22:15
11, zapatua: 19:30-22:15
12, domekia: 19:30-22:15
13, astelehena: 21:30
"Chicken Little"
12, domekia: 16:30
«L'Enfant» (Z.K.)
16, eguna: 21:30
«Los dos lados de la cama»
17, barixakua: 22:15

EIBAR, UNZAGA

«Esta abuela es un peligro»

10, barixakua: 19:30-22:15
11, zapatua: 17:00-19:30-22:15
12, domekia: 17:00-19:30-22:15
13, astelehena: 19:30-22:15
14, martitena: 19:30-22:15
15, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«La vida secreta de las palabras»

10, barixakua: 19:30-22:15
11, zapatua: 17:00-19:30-22:15
12, domekia: 17:00-19:30-22:15
13, astelehena: 19:30-22:15
14, martitena: 19:30-22:15
15, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENeK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

«Plan de vuelo: desaparecida»



Zuzendaria: Robert Schwentke.

Antzezleak: Jodie Foster, Peter Sarsgaard.

Lurretik 12.000 metrora, E-474 hegazkin erraldoian Berlinetik New York-era bidaiatzen ari dela, edozein amaren amezgaitorik gaiztoenari aurre egin beharko dio Kyle Pratt-ek: bere alaba Julia arrastorik laga gabe desagertu da. Bere senarraren ustegabeko heriotzetik oraindik errekuperatu gabe, zorotzat hartuko duen tripulazioari bere tragedia sinestarazi beharko dio Kylek. Inork sinesten ez duela ikusirik, bere buruaz zalantza egiten hasiko da, benetan ote dago ero?

«L'Enfant» (Zine Kluba)

Zuzendaria: Jean-Pierre eta Luc Dardenne.

Antzezleak: Jérémie Renier, Déborah François, Jérémie Segard.

Brunok 20 urte ditu eta 18 urte Sonia. Azken honen sorospen laguntzatik eta Brunok lagunkoteekin egiten dituen lapurreta txiketarik bizi dira. Biek seme bat izan zeri dute, Jimmy. Bruno den modukoa izanik eta daraman bizimoduarekin aita ona izan al daiteke? Alegia, egunerokoaz eta bere negoziotxoetatik ateratzen duenaz bakarrik arduratuz. Cannes-eko Zinemaldian sari nagusia irabazi zuen Dardenne ("Rosetta") anaia belgikarren filmak.

Atzera begira



1955 urte inguruko argazki hau **Mari Vazquezek** ekarri digu erredakziora. Gabilondo y Co. tailerrean ateratako erretratu da. Santa Ana kalean zegoen kokatuta eta bertan pistolak eta errebolberrak egiten zituztela azaldu digu Mari: "Bederatzi hazbeteko parabellum-ak eta kalibre guztietakoak egiten genituen". Gisa honetako tailerrak ohikoagoak izan ziren garai batean gure herrian eta elgoibartar mordoia pasa zen armagintza tailer honetatik. "Nik hiru urte eta erdi egin nituen eta ezkontzerakoan laga nuen lana, lehen horrela ziren gauzak, ezkondu eta lana laga. Eskerrak, alor horretan behintzat, gauzak asko aldatu diren orain". Argazkiaren ezker aldean ageri dena, **Mari Vazquez** bera da eta eskuinekoa, bere lehengusina, **Antonia Linares**.

ESKAINTZA			*ESKULANA eta BEZ-a prezioan barne.		
REF.	DESKRIBAPENA	PREZIOA/€	REF.	DESKRIBAPENA	PREZIOA/€
958337	175-65-14E3A (T)	74,77	818521	195-60-15E3A (H)	104,92
860809	165-65-14E3A (T)	65,72	848762	195-65-15E3A (V)	107,43
881923	175-70-13E3B (T)	62,71	137266	205-50-16 (V) PRIMACY	159,68
502818	165-70-13E3B (T)	60,70	688397	185-65-15E3A (H)	107,43
72716	185-65-15E3A (T)	84,82	458398	205-55-16E3A (V)	141,09
766215	175-70-14E3A (T)	75,77	137268	205-55-16E3A (V) PRIMACY	141,09
136227	195-65-15E3A (H)	100,90	136276	215-50-17 (W) PRIMACY	232,53

Michelin Alineazioa ez dago prezioan barne.

Giauto ELGOIBAR · BERGARA · ARRASATE · EIBAR · ANOETA · OLABERRIA

www.giauto.es
clientes@giauto.es
902 345 125

SAHATZU harategia eta **NAVA** inprimategia
ELGOIBARKO IZARRAren **SANTA AGEDA** taldearekin

SAHATZU
Tel.: 943 74 20 48 **HARATEGIA**

NAVA
Tel.: 943 74 44 51 **INPRIMATEGIA**

Haur hezkuntza



Lehen hezkuntza



Bigarren hezkuntza



Elgoibarko Herri Eskola
Kalamua, 8
Tel.: 943 74 08 79
E-posta: 012777aa@hezkuntza.net


EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAK: GEUREA

MATRIKULAZIOA

2006 - 2007

OTSAILAREN 4tik 17ra

Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza



Euskadi
2 0 0 4

Elgoibarko Institutua
San Roke, 11
Tel.: 943 74 80 19
E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net

MILAR BIRE

Ubitarte, 11 - 943 74 14 87



Elektronikoa

GARBIGAILUA EDESA L-1006

Gehieneko zentrifugazioa: 1000. Karga gaitasuna: 6 kg.

299 €



Elektronikoa

ONTZI-GARBIGAILUA

SIEMENS SE-25 E230EP

5 programa. 4 tenperatura.

419 €

Formato panoramiko 32"




LCD TELEBISTA PANORAMIKOA

PHILIPS 32 PF5320

WXGA pantaila, 1366 x 768 p.

1.499 €



DVD - JVC XV-N422

DIVX, 44mm-ko altuera.

79 €



DVD GRABATZAILEA - LG DR 7800

DVD multiformatu grabatzailea, DIVX.

219 €



Zure erosketak
finantzatzen ditugu

**Telebista digitalarentzat hargailuak ditugu
69 €-tik hasita!**

Ordaindu ezazu 11 hilabetetan interesik gabe!